

2007ko abuztuaren 7an, ASTEARTEA, arratsaldeko ZORTZITAN, Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan egingo den Ohiko Batzarrera deitzen zaitugu, ondoren aipatzen diren gaiak aztertzeko.

EGUNEKO AZTERGAIAK.

- 1.-2.007KO EKAINAREN 16 ETA UZTAILAREN 16KO AKTEN ONARPENAK, BIDEZKOA BADA.
- 2.- ZENBAIT DEKRETUEN BERRI EMATEA.
- 3.- HERRIKO LURSAILA SALTZEKO LEHIAKETAREN PLEGUAK ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.
- 4.- 2.008KO HERRIKO JAIEGUNA IZENDATZEA.
- 5.- SOINKETA-TALDEAK 2.007KO UZTAILAREN 20EAN AURKEZTURIKO IDATZIAREN AZTERKETA.
- 6.- ALKATEGOAREN INFORMAZIOA.
- 7.-GALDE ERANTZUNAK.

Aduna, 2007ko abuztuak 2.

ALKATEA.

2.007KO ABUZTUAK 7.

OHIKO PLENOA.

Bertaratuak:

ALKATEA
ZINEGOTZIAK:
Bertaratuak:

Arantza Aburuza Alkorta.

Miren Aburuza Alkorta.
Josu Amilibia Alsua
Iñaki Aristeta Gurrutxaga.
Ainara Iturrioz Lekuona.

Bertaratu gabeak:

Jose Antonio Irazu Mendizabal.
Iker Iturrioz Lekuona.

IDAZKARIA:

Maria Etxeberria Urretabizkaia.

Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan, bi mila eta zazpiko abuztuaren zazpiko hogeitau ordu eta hogeitau minutuak izanik, Adunako Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate Anderearen Lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren Zinegotzi Jaun/Andereen partaidetzaz.

Lehendakaritzaren aginduz Batzarra hasi ondoren, Idazkariak adierazi du berau burutu daitekeela legeak ezarritako quoruma bertan dagoelako.

LEHENENGO PUNTUA:
2.007KO EKAINAREN 16 ETA UZTAILAREN 16KO AKTEN ONARPENAK,
BIDEZKOA BADA.

Alkateak 2007ko ekainaren 16 eta uztailaren 16ko akten berri ematen du eta aurrean aipaturiko zinegotziek aho batez onartzen dituzte.

BIGARREN PUNTUA:
ZENBAIT DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Alkateak azken Plenoa egin zenetik ondoren aipatzen diren Dekretuak eman dituela jakinerazten du:

1.- Lardi auzoko zolaketa obrak egiteko Udala tramititzen ari den desjabetzapen espedientearen barruan, Udala Desjabetzapen Epaitegian ordezkaria dezan goi-mailako arkitektoa izendatuaz (75/2007 Alkatetza Ebazpena).

2.- Adrian Echeverria Aramburu Jaunari 6984-FPN ibilgailuaren exentzioa onartzen dela jakineraziaz (76/2007 Alkatetza Ebazpena).

3.- 2.007ko 2.hiruhilabeteko ur hornidura zerbitzuagatik tasaren errolda onartuaz (77/2007 Alkatetza Ebazpena).

4.- Construcciones Trati,S.L.-ri 2.280 m²-tik 1.003,33 m² segregatzeko baimena emanaz (78/2007 Alkatetza Ebazpena).

5.- Izaskun Arregi Urkola Andereari 2.007 urteko Trakzio Mekanikozko Ibilgailuei buruzko zergaren zati proportzionala itzuliaz (79/2007 Alkatetza Ebazpena).

6.- Gipuzkoako Foru Aldundiari erriberan lurra pilatu eta mugitzeko baimena ematea (80/2007 Alkatetza Ebazpena).

7.- Haizpea Industriegunearen atzean dauden furgonetetan bizi direnei, ibilgailuak eta gainerako tresneria kentzeko agindua jakineraztea (81/2007 Alkatetza Ebazpena).

8.- Juan Jose Aburuza Otegi Jaunari Olatza baserriko azpiko sailetan zenbait lan egiteko baimena ematea (82/2007 Alkatetza Ebazpena).

9.- Naziotasun egunean autobusa ordaintzeko 214€-tako dirulaguntza ematea (83/2007 Alkatetza Ebazpena).

10.- Mohamed Stitou Jaunari herriko festetan jostailu eta txutxeriak saltzeko postu bat jartzeko baimena ematea (84/2007 Alkatetza Ebazpena).

**HIRUGARREN PUNTUA:
HERRIKO LURSAILA SALTZEKO LEHIAKETAREN PLEGUAK
ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.**

Alkateak Udalaren jabetzako lursaila lehiaketara ateratzea proposatzen du, lursailaren deskribapena ondorengo delarik:

Xedea: Haizpea Industriegunean dagoen industri erabilerako lursail hiritarra, 3.878 m²-koa. Gehienez ere, 2.219 m²-ko eraikigarritasuna duena eta oinarrean % 20 eraiki daiteke gehienez.

Mugak: **iparraldean**, erregistroan 313 zenbakia dagokion finka banandua, C letran deskribatua, gaur egun Arcelus, Salvatierra eta Aramburu jaun/andreen jabetzakoa; **hegoaldean**, bide publikoa eta banandutako lurzatia; **ekialdean**, Andrategi baserriko sailak eta Izaguirre eta Sorondo jaun/andreen finkak; eta **mendebaldean**, espaloia eta bide publikoa.

Titulua: Adunako Udalarena da, lagapen tituluaz eskuratua, Madrilgo Jose Antonio Escarpin Ipiens notarioaren aurrean 1998ko uztailaren 15ean egindako eskriturak dioenez.

Inskripzioa: Adunako 1608 tomoa, 18 liburua, 84 folioa, 714 zenbakiko finka, 1. inskripzioa.

Ondasunaren izaera: ondarezkoa.

Balio periziala: 851.351 €.

Aipaturiko lursaila **PROZEDURA IREKIAZ** esleitzeko **LEHIAKETA** arautuko duten Baldintza Administratibo Partikularren orriaren laburpen bat egiten du eta AHOBATEZ ONARTZEN DU Udalbatzak.

LAUGARREN PUNTUA:

2.008KO HERRIKO JAIEGUNA IZENDATZEA.

Ekainaren 19ko 102/2007 Dekretuaren 2.3 artikulua, (uztailaren 13ko 135 zenbakidun EHAAan argitaratua), xedatutakoa betez, eta 2008ko Gipuzkoako udalerriz guztietako jaiegun lokalak zehazteko asmoz, Adunako Udaleko Alkateak abuztuaren 14a proposatu eta Udalbatzak, aho batez, onartu egiten du.

BOSTGARREN PUNTUA:

SOINKETA-TALDEAK 2.007KO UZTAILAREN 20EAN AURKEZTURIKO IDATZIAREN AZTERKETA.

2.007ko uztailaren 20ean, Adunako Soinketa taldeak aurkezturiko 2 eskaerak aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, zera erabaki du:

1.- Jarduera honen antolamendu eta kuoten ordainketari dagokionez, Aiztondo Gizarte Zerbitzutatik tramitatzea.

2.- Dirulaguntzari dagokionez, soinketa iharduera aurrera dioan heinean, aztertuko da.

SEIGARREN PUNTUA:
ALKATEGOAREN INFORMAZIOA.

Alkateak azken Plenoa egin zenetik gertatu diren gai interesgarrienen eta hartutako erabakien berri ematen du eta Udalbatza jakinaren gainean geratzen da.

Beste Aztergairik gabe, hogeita bat orduak direnean, Batzarra amaitu da, eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.